

**AITA HIPOLITO LARRAKOETXEA**  
**GRIMM ANAYEN IPUIÑAK LIBURUAREN ITZULTZAILE**

1) *Edizio barria (2001).*

Orain dala hilabete batzuk agertu da Legoaldi edo Aita Hipolito Larrakoetxearen liburu baten argitalpen barria: *Grimm Anaien berrogeita hamar ume ipuin*. Bilbao, 2001, 418 or. (Labayruren "Sutondoan sorta"n); edizioaren prestatzaile Miren Atutxa izan da.

Aita Hipolito (1892-1975) Karmeldarra zan eta Markinako komentuan hil zan. Haren liburu, eskueskribu eta dokumentuak Karmeldarren artxiboetan aurkitzen dira. Ha hil zaneke 25 urte zirala-eta, *Grimm Anaien berrogeita hamar ume ipuin* liburua argitaratzeko asmoa genduan eta, hasteko prest, proba txiki batzuk be egin genduzan... Eta hara non jakiten dogun egunkarietatik Labayru-k prestatzen ziharduala liburu horren argitalpena... Hareekin berba egin genduan, alkarrekin argitaratzeko asmoz..., baina oker ulertzeren bat izango zan bitartean... ustekabean liburua argitaratuta ikusi genduan eta.

Ipolito Larrakoetxea

*Legoaldi*

# GRIMM ANAIEN BERROGEITA HAMAR UME IPUIN

Sarrera, oharrak  
eta moldaketa:  
Miren Atutxa



SUTONDOAN SORTA  
LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Orain, labur-labur bada be, liburu honen barri emon nahi dot, baita Hipolitoren itzulpenaren estiloa alemanarekin eta bateko eta besteko irudiak pixka bat konparatu be.

2001eko edizioa polita eta egokia da. Eta ediziorako erabilitako irizpideak onartu leitekezanak izan dira. Miren Atutxak berak azaltzen deusku sarreran, testua eguneratzeko erabili izan diran irizpideak: grafemak, puntuazinoa, fonetika, morfologia eta beste arazo batzuk izan ditu kontuan. Arrazoa ulertzekoa da: "Larrakoetxearen idazkerea ahalik eta gehien errespetatzea izan da lan honen helburu nagusia, baina aldi berean testuari ikututxu batzuk egin behar izan deusaguz eta gaurko bizkaierarantz moldatzeko ahaleginak egin, batez be gaur egungo irakurleak testu errazago eta ulergarriagoa izan dagian" (47 or.).

Hipolitoren idazlanak dirala eta, ondo etorriko zan, batez be bibliografian, haren eta hari buruzko lanen aipamena gehixuago agertzea, batez ere Hipolitoren Grimm anaien ipuin batzuei buruz.

Liburu bien tamaina antzekoa da, zaharrarena: 205 x 132 mm; eta barriarena: 210 x 138 mm. Liburu zaharreko ipuinak 320 orrialdetan sartzen dira, eta barrian 361 orrialdetan, baina hemen oharrak be agertzen dira.

Mirenek alemanez agertutako Grimm anaien liburuaren azalpen batzuk emoten ditu (28-29). Eta gauzarik interesgarriena hau da: "1825eko edizino txikiren bat be ei dago, haurrentzako aukeratutako berrogeita hamar ipuinegaz". Ba, ezinbestekoa zan umeentzat egindako edizio hori eskuratu, Hipolitoren itzulpenarekin sakon konparatu eta Hipolitoren iturria zehatz azaltzea.

Ni neuk liburu hori eskuratzeko ahaleginak egin ditut azken egunetan, baina laster eskuratzeko nengoala, Karmel al-dizkariko zenbaki hau kaleratzeko ordua heldu da eta ezin izan dot ikerketa berezi hori egin.

## 2) *Aita Hipolito Grimm Anaien itzultzaile eta argitaratzaile*

Aita Hipolitok erreztasun handia eukan hizkuntzetarako, eta haren berarizko asmoa hizkuntza arloan ikasketak egitea zan, baina Aita Ezekiel nagusiak zuzenbide eta legeen ikasketara bultzatu eban Hipolito. Alemana urte baten ikasi eban 1916-1917ko negu eta udabarrian. Irakaslea Santutxun bizi zan, Vienakoa zan; eta pozik joaten zan Karmelora Hipolitori aleman irakastera. Irakasle horrek, itzulpen-lanak emoten eutsazan Hipolitori, eta horretariko bat Grimm Anaien ipuinak gaztelaniara iltzuntzea izan zan. Geroago, Hipolitok, bere kabuz, euskerara itzuli zituan ipuinok.

Lehenengo zatika edo ipuinka, aldizkarietan argitaratzen hasi zan; *Euzko Deyan* 1922-1923an, eta *Euskal Esnalean* 1924-1929an. Eta 1929. urtean liburu lez argitaratu eban Kontxita Gangoiti andra abertzaleak ordainduta. Urte berean agertu zan beste itzultzaile bat: Joseba Altuna: GRIMM ANAYAK, *Ipuñak*. Bilbao, 1929, 160 or. Baina hemen 14 ipuin bakarrik agertzen dira. Altunaren lana baleiteke Hipolitoren aldizkarietako ipuinen eragina izatea.

Hipolitoren liburu honek bere eragina izan eban, eta batez be Karmeldarren artean eragin zabala: liburu hori Karmeldarren ikastetxean testu liburu bihurtu zan; ehundaka umek eta gaztetxuk erabili eben euren euzkarazko alfabetatze lanean, batez be 50. eta 60. hamarkadetan. Ekintza honen ondorioa da liburuaren eragina: bai euskal mundua maitatzea, eta baita euskara bera maitatzea be.

## 3) *Alemana eta euskera: hizkuntza eta irudien konparaketa*

### a. Testua.

Hipolitok berak dinosku: “Nik doitxeratik euzkeraldu egin dautzuedaz, ez baña sarritan itzetik-itzera, nasaitxoago baño, onan euzkerea be azkatutxoago ibilli eiten”. Eta beste hau be esaten dau: umeei eskeinitako 50 ipuineko alemanezko edizioa erabili ebala.

Hori jakin ondoren, alemanezko testua zelako leialtasunez itzultzen dauan aztertzea komeni da. Horretarako proba bat egin dot alemanezko testua Hipolitorenez konparatuz. Hipolitoren Hamabi anaiak ipuina aukeratu dot (1929, p. 51-57; 2001, 109-116), eta alemanezko testua Die zwölf Brüder (*Kinder- und Hausmärchen. Gesamtausgabe*. Gondron argitaletxea, 2001, 33-36). Ipuin horretan behintzat Hipolitok ia hitzez hitz itzultzen dau euskarara, leial, ia ezer aldatu barik. Aldaketa txiki bi bai baditu: ez dakit zergaitik, alemanezko testuan datozen *hamaika* anaiak Hipolitogan *hamabi* dira; eta gerotxuago antzera: *hamar* urteren ordez *hamabi* urte.

Beste adibide bat be aitatzekoa da: *verwünschtes Haus* Hipolitok sorgin-etxe itzultzen dau, oso ondo itzulia, gauza berbera ez bada be; *verwünschtes Haus*, hau da, *etxe madarikatua*, eta zentzu zabalagoan *sorgindutako etxea*. Esan beharra dago lerro bateko esaera bat itxi ebala itzuli barik.


#### b. Irudiak.

Irudiei buruz komparaketa laburra egingo dogu euskerazko liburu bien artean, eta gero euskerazko eta alemanezko liburuen artean.


Esan beharrekoa da, euskerazko edizio barriak ia zaharreko irudiak argitaratzen dituala. Baina badagoz alde txiki batzuk: edizio barriko irudiak txikiagoak dira zaharrekoak baino. Zaharreen agertzen diran hiru irudi (7, 98 eta 147. orrialdeetan) ez dira argitaratu edizio barrian, eta zaharreko 98. orrialdekoa, zertxobait diferente dago barrian. Eta beste hau be aitatzekoa da: edizio zaharreen agertzen diran iruditxuak ipuin bakotxaren amaieran, gehien bat loratxuak, ez dira agertzen barrian.



—Txapelgorritxo—



—Hiru iruleak—



—Arrantzalea eta emaztea—


2001. urteko alemanezko edizio barrian Ludwig Richter (1803-1884) famatuaren 160 irudi agertzen dira (egurrean grabatuak); Richter jaunari “Alemaniako etxearen irudigile” deitu eutsien. Askotan Alemaniako janzkera agertzen dau; irudi samurrak dira, xehetasunez jantziak...

Hipolitoaren itzulpenean irudiak euskaldun kutsukuak dira, orduko ume-irakurleak euren etxeko jantzi antzekoak ikusten zituen, biziak eta ondo egokituta euskaldun munduan; irudiak *Hermes* sinaduraz agertzen dira. Horregaitik, euskarazko edizio barrian, liburuaren azaleko irudia ez dator bat barruko euskal kutsuko irudiekin.

Ikusi daiguzan irudi batzuk: lehenengo hirurak gai bardinekoak, alemaniazko eta euskarazko liburukoak; eta orain jarriko ditugu beste irudiak, gai desbardinetaoak:



—Orkolotxo—



—Urre-sagar ipuina—






—Senar-emazte zuburrak—



—Etxe-igelaren ipuinak—



—Kalistro eta Mari Pepa—



—Zazpi belak—



—Atzizarren joan-etorriak—

*Julen Urkiza*